



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

## **GERNIKAKO ARBOLAREN KIMU BAT LEHENDAKARITZAN LANDATU DA**

- **Iñigo Urkullu lehendakariak kimuaren benetakotasun-ziurtagiria jaso du Batzar Nagusietako lehendakari Ana Otaduiren eskutik.**

*(Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 28an).*- Iñigo Urkulluk, Eusko Jaurlaritzako sailburuekin batera, Lehendakaritzak Gasteizen duen egoitzaren fatxada nagusiaren aurrean landatutako haritzaren *Gernikako Arbolaren kimuaren* ziurtagiria jaso du Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakari Ana Otaduiren eskutik.

Ekitaldi sinboliko horretan Iñigo Urkullu lehendakariak ziurtatu duenez, Lehendakaritzan landatutako Gernikako arbolak gogora ekarriko du egunero Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna giza eskubideak, ingurumena, hezkuntza, bakearen kultura eta bizikidetzarako pedagogia babestea eta errespetatzea dela. Balio horien ildoari jarraituz, lehendakariak bat egin du aste honetan nazioartean egin diren hiru oroitzapen-ospakizunekin: Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio-esparrua askatu zuten egunaren 75. urteurrena, CO2 gasaren isuriak murriztearen aldeko Munduko Eguna eta Indarkeriarik ezaren eta Bakearen Eskola Eguna.

Bestalde, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak adierazi duenez, Gernikako Arbolak esanahi berezia du euskaldun guztientzat, sentsibiltate politikoak edozein izanik ere. Hori dela eta, erakunde guztien arteko lankidetzarako eta desberdinen arteko elkarrizketarako deia egin du, herrialdeak aurrera egin ahal izan dezan. Hitzaldiaren amaieran, honako nahi hau adierazi du Ana Otadui: "Lehendakaritzan landatutako kimuak ongi errotutako nortasuna duen herri batek askatasun-, berdintasun-, aurrerapen- eta bake-fruituak ematen dituela erakustea".

Hitzaldia amaitu ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak kimuaren benetakotasuna bermatzen duen ziurtagiria eman dio Urkullu lehendakariari.

Horrela, beraz, Lehendakaritzako Gernikako Arbolaren aldaxka XIX. mendean geroztik bost kontinenteetako hainbat lekutan landatu diren bostehun kimu ingururi gehitu behar zaie. Gasteiz Gernikako haritzaren ondorengo arbol propioa duten herrien zerrenda luzean txertatu da. Haien artean, honako hauek aipa daitezke: Göteborg, Padrón, Laudio, Pforzeim, Sidney, Auschwitz eta Washington.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## UN RETOÑO DEL ÁRBOL DE GERNIKA CRECE EN LEHENDAKARITZA

- **El Lehendakari, Iñigo Urkullu, ha recibido de la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui, el certificado de autenticidad del retoño.**

(Vitoria-Gasteiz, a 28 de enero de 2020).- El Lehendakari Iñigo Urkullu, acompañado de las y los consejeros del Gobierno Vasco, ha recibido de manos de la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, el certificado de *Retoño Árbol de Gernika* del roble plantado ante la fachada principal de la sede de Lehendakaritza, en Vitoria-Gasteiz.

En este acto simbólico, el Lehendakari, Iñigo Urkullu, ha asegurado que el Árbol de Gernika plantado en Lehendakaritza recordará, día tras día, que es cometido del Gobierno Vasco velar por la defensa y el respeto de los derechos humanos, el medio ambiente, la educación, la cultura de paz y la pedagogía para la convivencia. Siguiendo la línea de estos valores, el Lehendakari se ha sumado a tres conmemoraciones internacionales celebradas esta semana: 75 aniversario de la liberación del campo de concentración de Auschwitz-Birkenau, el Día Mundial por la Reducción de Emisiones de CO2 y el Día Escolar de la No Violencia y la Paz.

La Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, por su parte, ha afirmado que el Árbol de Gernika tiene un significado especial para todos los vascos, al margen de sensibilidades políticas. Esto así, ha hecho un llamamiento a la colaboración de todas las instituciones y al diálogo entre diferentes para sacar este país adelante. Ana Otadui ha concluido su intervención expresando el deseo de que “el retoño plantado en Lehendakaritza muestre que un pueblo con una personalidad arraigada da frutos de libertad, igualdad, progreso y paz”.

Tras terminar sus palabras, la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia ha hecho entrega al Lehendakari Urkullu el certificado que garantiza la autenticidad del retoño foral.

El esqueje del Árbol de Gernika que crece en Lehendakaritza se une así al cerca de medio millar de retoños que desde el siglo XIX se han plantado en lugares de los cinco continentes. Gasteiz se suma a la larga lista de localidades que cuentan con su propio árbol descendiente del roble de Gernika: Gotemburgo, Padrón, Laudio, Pforzeim, Sidney, Auschwitz o Washington.